

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Antropologo bazara Osaba Samen gerrak behar zaitu

AEBetako militarrek antropologo eta soziologoak txertatu dituzte beren soldaduen artean, gerran eraginkortasun handiagoa lortzeko. XX. mendean gerrillarien kontra Indonesian, Kenyan, Aljerian, Ipar Irlandan, Palestinan eta bestetan militarrek ikasia, Irak eta Afganistanen usatzeko.



“AGUR TERDI, KORONEL JAUNA. Nire lanarekin zerikusia duen gertakizun bat argitzeko laguntza eskean natorkizu. Gurekin Antropologo Kezkatuaren Sarean ari den AEBetako inteligentziako ofiziale ohi batek ikusi berri ditu Laurie Adler eta Jessica Lawrence militarrek gure bilkura batean idatziz hartzen kontra-intsurgentzian parte hartzeari uko eginez agiria sinatu duten antropologoen datuak”. Hitzokin hasi du gutuna Hugh Gusterson antropologo eta irakasleak Steve Fondacaro lotinant koronelari igorri diona.

Hugh Gusterson Antropologo Kezkatuen Sareko liderretakoa da. Steve Fondacaro lotinant-koronela, berriz, *Human Terrain System* delakoaren zuzendaria. Biak daude gerran. Militarrek azkenaldian antropologian eta soziologian ikasketak egindako lizentziatu gazteak kontratatzen ditu Irak edo Afganistanen guduka ari diren unitate militarretan txertatzeko. Irakaslea berriz, beste mila antrologo baino gehiagorekin batera “Ez gure izenean” diotenetakoa da.

*Human Terrain System* delakoa 2006an jarri zuten martxan militar iparramerikarrek “operazio militarretarako garrantzizkoa den kultur ezagutza” bereganatzeko. Aurtengo ekainaren 12tik aurrera 12 *Human Terrain Team* (HTT) edo ekipo ari dira lanean Irak eta Afganistanen. Iraila amaitzerako

dozena bat gehiago bidaliko dituzte. Talde bakoitza hiru zibilek eta hiru militarrek osatzen dute. Kansas estatuko Leavenworth Fort-eko kasernan entrenatu ondoren, sei-bederatzi hila-betetarako joan dira Irakera bezala Afganistanera.

Bill Statmets idazleak kontatu du antropologoen eta militarren arteko liskarra *In These Times* aldizkarian publikatutako *Anthropologist at war* artikuluan. Kontra-intsurgentzia kontuak beti interesatzen dira Euskal Herrian, Frantzia eta Espainiak hemengo gatazka armatuaren kontra, eta era zabalagoan nazionalismoaren kontra, taktika horiek erabiltzen dituztelako, sarritan munduko beste adituei (ingelesei, alemanei, israeldarrei...) ikasita. Bestalde, orain Mendebaldeak munduko lurralde urrunetan pizturik dauzkanez gerrak, guduen osagai kulturazko eta sozialek garrantzia berezia daukate edonon.

*Human Terrain System* delakoak bere gunea dauka Interneten, informazio asko eskainiz. Hala, HTT ekipoen lana omen da “tropei hobeto ulertaraztea zein EZ den beren etsaia” eta laguntza handia eskaintzen omen diote AEBetako armadari “bertako herritarrengan eraginez tresna ez-hilgarriekin”. Militarrek babesten dute lan-ildo hau: “Kultura ulertu behar dugu irabazi ahal izateko”, deklaratu zuen Kongresuan Schweitzer koronelak berrikitan.

Aipatu webgunean memorial delakoa ere badaukate, eta hartatik jakin dezakegu dagoeneko HTTetako bi kide badirela hilak guduan. Bata Michael Bhatia soziologoa, Oxforden doktorego tesia egiten ari zena, titulu honekin: “*The Mujabideen: A study of combatant motives in Afghanistan 1978-2005*”. Bigarrena Nicole Sauveges, zientzia politikoetan lizentziatua, karrerako lana honela izendatu zuena: “*Markets & Mullabs: Global networks, transnational ideas and the deep play of political culture*”.

### Gerlari doktoreak

Gizarte zientzietako lizentziatuok armadarekin elkarlanera enpresa pribatutik iristen dira. Munduko segurtasun korporazio handienetakoa den BAE Systems-ek azken bi urteotan gisa honetako 30 profesional alokatu dizkie militarrei. Gerra modernoak azpikontrata bidez egiten baitira, beste edozein zerbitzu publiko bezala.

Profesionalon bila unibertsitateetara jo dute eta Antropologo Kezkatuen Sareak salatu du HTTetarako jendeak biltzeko BAE bezalako enpresak egiten ari diren kanpaina. Hona datu esanguratsua: sistema honetako zerbitzuetan bakarrik BAEk 160 milioi dolarreko salmentak fakturatu dizkio armadari.

*Human Terrain System* honek baditu gailurrean bi pertsonaia nabarmen.



AEBetako armadak Interneten ipinita daukan argazki honek erakusten ditu Irakera joan behar duten militar gazteak David J. Kilcullen (eskuinetik lehenbizikoa) antropologo australiarrarekin prestaketa lanean. Kontra-intsurgentzia klasikoak den Indonesiako esperientziaz burutu zuen Kilcullenek doktorego tesia, eta Australiako militarrei Ekialdeko Timorren laguntzen ibili da. Kilcullen, Montgomery McFate eta beste aditu batzuen gomendioei jarraiki, Irakeko gudu operazio beroenetan ari diren unitate militarretan gizarte zientziak ikasitako lizentziatu gazteak integratu dituzte.

Bata da Montgomery McFate andrea, gizarte zientzien aholkulari nagusia. McFate Yale-ko unibertsitatean 1995ean egin zen doktore, honako tesia irakurrita: *“Pax Britannica: British Counterinsurgency in Northern Ireland”*. Estatuon morroiek kontra-intsurgentzia ikasi dezaten beti izan da eskola ona Ipar Irlandakoa.

Segurtasunaren adar berri honen bigarren pertsonaia gakoa David J. Kilcullen australiarra da. Honek 2000n irakurri zuen bere tesia Hego Gales-ko unibertsitatean eta Australiako akademia militarrean batera aurkeztu zuena: *“The Political Consequences of Military Operations in Indonesia 1945-99: A Fieldwork Analysis of the Political Power-Diffusion Effects of Guerrilla Conflict”*. Horra kontra-intsurgentziako adituen iturri

klasikoak: Ipar Irlanda, Aljeria, Indonesia, Kenya... Agidenean, Kilcullen kontra-intsurgentziako operazioetan Australiako armadari laguntzen aritu zitzaion Ekialdeko Timorren.

McFatek aldizkari militar batean honakoa idatzi zuen 2005ean: *“Ezjakintasuna hilgarri suerta daiteke. Kultur ezagutza eta gerra elkarri oso estu daude lotuta. AEBetako armadak bere egin behar du etnografoak munduaz daukan ikuskera”*.

Adituon eraginari esker, orain Afganistanen eta Iraken tiroka dabil-tzan soldaduek aholku oso zehatzak jasotzen dituzte, bertako jendeen jokabideak hobeto ulertzeko eta haie-tara errazago inguratzeko. Edo alde-rantziz ere bai, batzuetan ez hainbe-ste hurbiltzeko. David J. Kilcullenek

e-postaz hau idatzi zien ofizialei frontetik: *“Normaltasuna ez da gauza bera Kandaharren edo Kansasen. (...) Ez utzi soldaduei lasai ibiltzen bertako umeekin. Zuen tropak herriminez daude; guardia jaisteko gogoia dute hurrekin daudenean. Baina umeak azkarrak dira, enpatiarik ez dute eta prest daude egiteko beraiek baino zaharragoak ausartuko ez lirateken basakeriak”*.

Iraken AEBetako armada osoaren buru den David Petraeus jenerala, Princeton-go unibertsitateko Filoso-fian doktore dena, honela mintzatu da: *“Pentsatzen duen gizonaren jokoa da gerra”*. Eta aurrerago: *“Gerra mugatua da kontra-intsurgentzia, pentsatzen duten gizonen gerra”*. Horretarako behar dituzte antropolo-go eta soziologoak.

Robert H. Scales jeneralak honela definitu du bilatzen duten jendearen perfila: *“Behar ditugu ‘scout’ globalak, ondo ikasiak, hizkuntzetarako gaitasunarekin eta urrutiko parajeetan eroso sentituko direnak”*. Eta Montgomery McFatek: *“AEBetako nazio segurtasun egiturak antropologiaren argia behar du; diziplina akademiko hori tribuen aurka gerra egiten laguntzeko asmatu baitzen”*.

David Price antropologo eta irakasleak oso bestela iritzi dio: *“Militarrek uste dute kulturak konpondu behar duela milaka tona muniziotik hautsi dutena. Baina antropologia usatu beharko genuke inbasio burugabeak saihesteko”*. ■

[www.argaia.com/nethurbil.php](http://www.argaia.com/nethurbil.php) helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



**Konfiantza delako garrantzitsuena**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI OPTIKA**

Herranri kalea - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL: 943 420 624

G A R A N T I A
2008ko urtarraren 13a